

Liburuak

KRITIKA

Amilami. Laminen istorioak.
Juan Kruz Igerabide; Elena Odriozola (irudiak).
Elkar. 180 orrialde. 24,50 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Antzinako istorio modernoak

LAMINEN ISTORIOAK direla dio liburu honen izenburuak. Lamina baten istoriotik abiatuta laminen inguruko istorioak, hain zuzen. Eta helburu horri erantzunez eskaini digu Juan Kruz Igerabidek Amilami protagonista nagusia duen nobela hau.

Dimatik ihesi, Sugoï zitalaren agindupetik ihesi, Gasteiza iritsiko da Amilami, bertan ospitalean lan egin eta, handik ere ihesi, etxe batean inude amaituko du ibilaldia lamia ederrak. Horrela laburbildu liteke nobelaren nondik norakoa, abenturazko nobelatzat har daitekeen obra. Sugoïk lamiak bidaliko ditu Amilamiren kontra, aurkitu eta ekar diezaioten; eta lamia onak, berriz, etsai horien kontra bere magia guztia erabili beharko du.

Abenturazko argumentu hori, baina, Igerabidek erabili duen egitura baino ez da, benetan kontatu eta azaldu nahi diguna gozatuz jarrai dezagun. Misterioa, intriga, jakin-mina... lamien inguruko informazioa azaltzeko erabili dituen tresnak izan dira nobela honetan. Horrela, hasiera-hasieratik aurkeztuko zaigu narrazioko protagonista nagusia, lamia gazte bat, Amilami, eta ondoren lamien ezaggarriak, trebeziak, ohiturak, jokabidea... eta beste mila kontu gehiago ezagutzeko parada izango dugu Amilamiren abenturetan zehar. Baina, ez horiek bakarrik, kontu horiekin batera lo-kantak, esaerak eta tradizioetik harturiko hainbat eta hainbat elementu ere aurkezten baitzizkigu Igerabidek.

Argi dago liburu honen bidez hori guztia egiteko asmo garbia izan dela. *Dona-dona* saila irakasle, guraso edo bibliotekariarentzat, bitartekariarentzat alegia, pentsatua izan da; batik bat euskal tradizioetik jasotako elementuen transmisio moderno eta berri baten bila. Eta hain zuzen transmisio moderno eta berri hori lortzeko, edo, beste modu batean esanda, lamien kontuak oraingo haurrei kontatzeko, idazlearen trebezia behar da. Aurreko batean Patxi Zubizarretak sorginekin egin zuena (*Atxiki sekretua* liburu zoragarrian) oraingo honetan Igerabidek egin du: kontakizun erakargarri, entretenitu eta ederki egituratu baten bidez tradizioa eta modernitatea lotzea, irakurlea harrapatzea hasierako orrialdetik amaierara arte irakurtzen jarrai dezan.

Elena Odriozolaren irudiek asko laguntzen dute liburuaren tonuan eta edertasunean; lamien ondoan ageri diren ume bien karakterizazioa eta, amaiera aldean, indarra oso lortuak dira; eta, ohi bezala, ilustratzaile donostiarrek are ederrago bilakatzen ditu liburuak kontakizunak.

Amilami tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen abenturazko nobela entretenigarria dugu, antzinako kontuak gaur egungo haurrei era guztiz erakargarrian eskaintzen liburu paregabea.

Patxi Uribarrenen lanak saria jaso du

Euskal Herriko Karmeldarrek argitaratzen dute *Karmel* aldizkaria. Aurtengo laugarren zenbakia da 264. hau, eta gizarteari, literaturari, kulturari eta elizari lotutako hainbat gogoeta plazaratu dituzte. Aldizkaria zabaltzeko, karmeldarrentzat berri pozgarria: Patxi Uribarren fraide karmeldarra euskaltzain oso egin dute, eta hori dela-eta,

kultur-gizon horren biografiatxoa publikatu dute aldizkarian. Gainera, gizarte gaiei eskainitako tartean, Patxi Juaristiren *Nora doa UPV/EHU?* artikulua bildu du zenbaki honek, baita Roman Garmendiak metafisikaz idatzi duen iritzi artikulua ere. Aldizkariaren azken atalean berriz, hainbat idazlearen poema eta bertsoak irakur daitezke. ■



Karmel 264.
Batzuen artean.
Euskal Herriko Karmeldarrak.
184 orrialde.
13 euro (urteko harpidetza).

Koloreen hitzak Euskal Herrian

Txema Preciadorek ustez, Euskal Herrian ez daukagu koloreak izendatzeko hitz askorik. Horrek, ordea, ez du esan nahi hemen kolorearen pertzepzioa ñabardura askokoa ez denik. Euskal Herrian, munduko beste hainbat lekutan bezala, kolorearen inguruko hitzek esanahi ugari hartzen dituzte, polisemikoak dira. Preciadok dioenez, Europako herri aborigena izanik, euskaldunon kontzientzia iraganeko oihartzunak entzun daitezke oraindik, koloreak izendatzeko modua lekuko. Liburu honen bidez, kontzientzia horretarako bideak

zabaltu nahi ditu egileak, koloreentzako erabiltzen diren hitzen bitartez. ■



El color desde la mentalidad vasca.
Txema Preciado.
Basandere.
318 orrialde. 23 euro.